

SADAR ESTADIOAN SARTZEKO ETA EGOTEKO ARAUAK

DEBEKATUTA DAGO:

1. DUNBALAK, DANBORRAK, LASER-ERAKUSLEAK, ESPRAIAK, AIRE KONPRIMATUKO BOZINAK, ATERKI TOLESGAITZAK EDO METALEZKO PUNTA ETA/EDO GOLF ERAKO ATERKIAK, ERREMATE METALIKOA EDO TA ZORROTZA DUTEN MOTA GUZTIETAKO ATERKIAK, MALETAK, MOTXILAK EDO ANTZEKO ELEMENTUAK, METALEZKO TRESNA HEDAGARRIAK, MEGAFONOAK EDO SOINU-ANIMAZIOKO EDOZEIN ELEMENTU.
2. **KLUB/KEA BISITARIEN JARRAITZAILEEN ERREGISTRO LIBURUAN IZENA EMANDA EZ DAUDEN TALDE EDO LAGUNARTEEN BANDERAK, HALA NOLA INDARKERIAREN AURKAKO BATZORDEAREN ESANETAN 19/2007 LEGEA BETE EZ DUTEN TALDE EDO KOLEKTIBOENAK.**
3. TALDE ULTRAESKUINDARREN SINBOLOGIA ERAKUSTEN DUTEN BANDERAK EDO TA PANKARTAK, AGINTARIEK ORAINDIK DEBEKATUTA IZAN EZ ARREN HARMAILAN EDO OSASUNAREN INSTALAZIOEN BARRUAN EZINEGONA ERAGIN EDO TA INDARKERIA BULTZA DEZAKETENAK ETA ISTILUAK SOR DITZAKETENAK. BISITARIEN TALDE EDO PEÑA GUZTIEN BANDERAK AURREZ JAKINARAZI BEHAR DIZKIO BISITARIEN SEGURTASUN SAILAK C.A. OSASUNARI.
4. KIROL-EKITALDIAREKIN BERAREKIN LOTURARIK GABEKO LELOAK DITUZTEN BANDERAK EDO PANKARTAK, HALA NOLA EDOZEIN MOTATAKO KEXAK, ALDARRIKAPENAK ETA ABARRAK ERAKUSTEN DITUZTENAK.
5. KOPURU TXIKITAN KALTEGABEAK IZAN DAITEZKEEN ARREN, ELKARTUTA SEGURTASUNERAKO ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ELEMENTUAK (KOMUNeko PAPERAREN BIRIBILKIAK, MOTA GUZTIETAKO PILOTAK EDO BALOIAK, ETAB.).
6. EDUKI KOMERTZIAL, POLITIKO, SOZIAL, ERLIJIOSO EDO ALDARRIKATZAILEA DUTEN ELEMENTUAK ERE DEBEKATUTA DAUDE, BAITA TALDE PARTE-HARTZAILEEN EDO EPAILEEN KONTRAKO A DUTENAK ERE.
7. SARRERA EDO ABONAMENDU BAT DAKARTEN IKUSLEAK HAREN AURREALDEAN ADIERAZITAKO JARLEKUAN BAINO EZINGO DIRA ESERI; HALA, EZINGO DIRA BESTELAKO EREMUETAN SARTU EDO EZ DAGOZKIEN JARLEKUE TAN JESARRI.
8. IKUSLEEK BEREN SARRERA EDO ABONAMENDUA GORDE ETA, AGINTARIEK (OSASUNAKO LANGILEAK, SEGURTASUNA, POLIZIA, ETAB.) ESKATUZ GERO, ERAKUTSI EGIN BEHAR DUTE; ALDEAN IZAN EZEAN, ESTADIOTIK KANPORATUAK IZAN DAITEZKE.
9. **203/2010 EDREN ARABERA, DEBEKATUTA DAGO EDARIAK EDO ELIKAGAI AK METALEZKO, BEIRAZKO, ZERAMIKAZKO, EGURREZKO EDO ANTZEKO MATERIALEZ EGINIKO ONTZIETAN SARTZEA, BALDIN ETA 500 MILILITROTIK/GRAMOTIK GORAKO BOLUMENA/PISUA BADUTE. DEBEKATUTA DAGO, HALABER, EDOZEIN MOTATAKO EDARI ALKOHOLDUN SARTZEA, BAITA ESTUPEFAZIENTEAK, PSIKOTROPIKOAK, ESTIMULATZAILEAK ETA ANTZEKO SUBSTANTZIAK ERE, EDO HORIEN ERAGINPEAN IZATEA.**
10. **203/2010 EDREN ARABERA, DEBEKATUTA DAGO EDOZEIN MOTATAKO ARMAK EDO HORIEN ONDORIO BERAK SOR DITZAKETEN OBJEKTUAK EDUKITZEA EDO ERABILTZEA, HALA NOLA BENGALAK, PETARDOAK, LEHERGAI AK EDO, ORO HAR, PRODUKTU SUKOIAK, KE-SORTZAILEAK EDO KORROSIBOAK ETA GAILU PIROTEKNIKOAK SARTZEA EDO EDUKITZEA.**
11. **2816/1982 EDREN 59. ARTIKULUAREN ARABERA, ESTADIOAN EZIN DA TAMAINA HANDIKO OBJEKTUEKIN SARTU, EZTA HAURREN ORGATXOEKIN EDO EBAKUATU BEHARRA BALDIN BADAGO IRTETEA OZTOPA DEZAKETEN BESTELAKO OBJEKTUEKIN ERE.**
12. ESTADIOAN SARTZEN DEN PERTSONA ORO **SEGURTASUN-KONTROLETIK IGARO** BEHARKO DA. HAREN GAUZAK MIATU EGINGO DIRA, ETA KLUBEKO SEGURTASUN-LANGILEEK HURA ARAKA DEZAKETE.
13. DEBEKATUTA DAGO IKUSLEAK EDO KIROLARIAK DAUDEN EREMUETARA EDOZEIN MOTATAKO OBJEKTUAK JAURTITZEA, HALA NOLA JOKALEKURA, ARBITRO-TALDEETAKO KIDEAK EDO KIROL-IKUSKIZUNAREN EDO - EKITALDIAREN GARAPENAREKIN LOTURIKO PERTSONAK DAUDEN TOKIETARA.
14. **ESTADIOAN EGOTEKO BALDINTZA OROKORRA DA KLUBEKO SEGURTASUN-ZERBITZUEK, SEGURTASUN-INDAR ETA - KIDEGO EK, LAGUNTZAILEEK, ATEZAI NEK, STEWARDAK** EDO TA KLUBEKO LANGILEEK KOKAPENARI ETA SEGURTASUNARI BURUZ UNE BAKOITZEAN EMATEN DITUZTEN JARRAIBIDEAK ETA AGINDUAK ERRESPETATZEA ETA BETETZEA.

15. IKUSLEAK ESTADIOAN EGOTEKO BALDINTZA ZEHATZAK DIRA EZ EGITEA EKINTZA BIOLENTO, ARRAZISTA, XENOFOBO EDO INTOLERANTERIK, EDO HALAKORIK BULTZA DEZAKEENIK, INDARREAN DEN LEGERIAREN ARABERA, ETA ZEHAZKI: EZ ASALDATZEA ORDENA PUBLIKOA, EZ SORRARAZTEA EDO PARTE HARTZEA ISTILU EDO BORROKETAN, EZ EGITEA EKINTZA BIOLENTORIK EDO INOLAKO ERASORIK, EZ FISIKOA EZ AHOZKOA.